



EUSKALTZAINDIA

Mikel Gorrotxategi Nieto, euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzorde idazkari denak, ondokoa

ADIERAZTEN DU:

Gaur egun era ofizialean *Sopelena* deitua den udalaren izenaren euskal idazkera egokia, indarrean dauden arauen arabera, **SOPELA** dela.

Koldo Mitxelena euskaltzain eta hizkuntzalari ospetsuak jada bere *Fonética Histórica Vasca*-n (1961), hau da, bere doktorego tesian, argi erakutsi zuenez, antzina, euskara zaharrak bi *n* mota zeuzkan: bata *ene forte* edo *sendoa* deitua /N/ moduan transkribatzen dugu. Bestea, ordea, zen *ene lene* edo *biguna* deitzen da eta /n/ gisa adierazten da fonetikan.

Lehenengoa, hau da, /N/ ene gogorra, bokal arteko jarreran, izkribu zaharretan -nn- gisa idatzirik ageri da eskuarki: (*Enneco...*), latinezko *n bikoitzaren* antzera (*anno* 'urtea', *canna* 'kana', *capanna* 'txabola'...). Hizkuntzaren eboluzioaz, bai euskara zaharreko -N- horiek eta bai latinetik jasotako hitz batzuetako -nn- fonemak gaurko euskaraz -n- ene arruntak edo normalak bihurtu zitzaizkigun, eta horrela, gorago alperaturiko adibideetatik gaurko *Eneko*, *kana*, *kapana*, heldu zaizkigu.

Gaztelako erdarak, aldiz, oso bestelako eboluzioa izan zuen, eta latinezko -nn- horiek normalean -ñ- bilakatu ziren, hau da, n patalalak: *año*, *caña*, *cabaña...* eta bide beretik, euskara zaharreko *eNeko* izen proprotik Erdi Aroan *Yeñego* eta geroago *Íñigo* sortu ziren.

Beste n fonemari dagokionez, hau da, euskara zaharren bokal arteko ene bigun horiek bigarren silaban zihozenean, normalean -h- aspiratuak bihurtu ziren: **bini* > **mihi* > *mihi*, *sein* < *seni* > *sehi*, *honore* > *ohore*, *anate* > *ahate*. Hori guzti hori, iparraldeko euskara mintzatuan gaur arte kontserbatu da, Hegoaldean, dakigunez, aspirazioa aspaldian galdu zen.

Azkenean, -n- fonema bigarren silaba baino atzerago gertatzen zenean, gaurko euskaraz normalean hasbeherapenik ezin gerta zitekeenez gero, erregulariki gaurko hizkuntzan h aspiratu horiek desagertu egin ziren. Adibidez: *ratone* > **arratohe* > *arratoe* > *arratoi*, *ratione* > **arrazoe* > *arrazoi*, **elana* > **elaha* > **elahea* > *elae* > *elai*, *campana* > **kanpaha* > *kanpaea* > *kanpae* > *kanpai*, *corona* > **koroha* > *koroa*.

Gertaera hau oso ondo dago dokumentaturik gure hitz arrunt askotan, bai eta Hego Euskal Herriko toponimo edo leku-izen ugarietan ere, ondoko adibideetan argi ageri denez:



EUSKALTZAINDIA

Araban: *Miñao* (Miñano), *Markiz* (Marquinez), *Uzkio* (Uzquiano), *Zerio* (Ceriano)...

Gipuzkoan: *Arroa* (Arrona), *Lazkao* (Lazcano), *Oikia* (Oiquina), *Zestoa* (Cestona)...

Nafarroan: *Alduate* (Aldunate), *Arroitz* (Arroniz), *Dorrao* (Torrano), *Gulia* (Gulina), *Taxoare* (lat. *Taxonare, esp. Tajonar), *Zolia* (Zolina)...

Bizkaian ere, antzeko toponimo ugari daude: *Butroe* (Butrón, tartean dokumentatu ez den **Butrohe*), *Fruiz* (Frúniz), *Galdakao* (Galdácano), *Laukiz* (Lauquiniz), *Leioa* (Lejona), *Lemoa* (Lemona), *Lemoiz* (Lemóniz), *Otxandio* (Ochandiano)...

Hizkuntzalarien ustez, kontsonante honen desagertzea X. menderako jadanik burutua zen, eta badira gertaera IV. mendean kokatzen dutenak. Data berantiarrena ontzat emango bagenu ere Sopaleren lehenengo erreferentzia historikoak baino mila urte lehenago.

Baina erdarazko administrazioek ez zituzten ikusten begi onez herriak erabiltzen zituen *n*-rik gabeko aldaera hauek eta sarritan, ia beti, baztertzen zituzten. Ondorioz, sarritan ez dira XIX. edo XX. mende arte dokumentatzen. Hala ere, badira salbuespenak eta *Otxandio* eta *Zeberio* dira esanguratsuenak. Gaztelako erregeak XIV. mendean hiri-gutuna eman ziotenean *Ochandiano* eman zion, baina ehun urte lehenago Nafarroako Antso VIIak Durangaldeari forua ematean *Ochandio* aipatu zuen. *Zeberio* 1375ean *Ceberiano* moduan ageri da Ugao herriari hiri-gutuna eman ziotenean. Geroztik ere behin edo bitan ageri bada ere, betiko desagertu eta *Zeberio* da aspaldian erabili den forma bakarra.

Sopelara itzuliz, azpimarratzekoa da *Sopela* formak ere izan duela erabilera herrian bertan. Hala erakusten du *Sopelabaso* izeneko inguru ezagunak. Baina deigarriena, eta jende gutxik dakien datua, deiturena da. Euskal Herrian sarritan gertatu da deituren euskal aldaerak sorlekutik urrun agertzea. Uribe Kostan administrazioeko eskribauek bazekiten nonbait, *Sopela* esan arren, ofizialki *Sopelana* idatzi behar zela, baina handik urrutiagoko eskribauek ez. Horren lekuko dira *Sopela* formarekin dokumentatzen diren deiturak, bai Urkabustaizko Abezia herrian XVIII. mendean, bai Bilbon 1820. urtean.

Laburbilduz, *Sopelana* formatik *Sopela* herri-izenerako bilakaera aspaldikoa da, euskarazko lege fonetikoaren arabera gertatutakoa eta, hortaz, euskal izen zuzena. *Sopela* formaren erabilera arrunta izan da euskaldunen artean, nahiz eta administrazioek mendeetan zehar erabili duten hizkuntzaren eraginez *Sopelana* forma gorde izan den. Beraz, euskararen lege fonetikoak, datu historikoak, lehenengo eta oraingo lekukotasunak kontuan hartuta, Euskaltzaindiak, aho batez ***Sopela***



EUSKALTZAINDIA

izena onartu eta gomendatu zuen, ondoko arauetan argitara emana:

- a) *Euskal Herriko Udalen izendegia*, 1979.
- b) *Euskal Herriko Euskal Autonomia Erkidegoko herrien izendegia*, 1986.
- c) *Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-Entitateak*, 2001
- d) *Bizkaiko Herri Izendegia*, (145. araua) 2005.
- e) *Euskal Herriko Udalen izendegia*, 2011.

Akademia honek 2005ean argitara eman zuen 145. araua, Donostian 2005eko azaroaren 25ean onartu zuen Akademiak

Herritarren izenei dagokienez, hauek *sopeloztar* eta *sopelar* dira.

Beraz, gorago azaldurikoaren ondorioz, hau

EGIAZTATZEN DU:

Euskaltzaindiak onartutako arauekin bat etorritz, udal honen izenaren euskal idazkera zuzena **SOPELA** dela.

Bilbon, bi mila eta hamabiko abenduaren hamahiruan.

Oniritzia:

Xabier Kintana Urtiagak
Euskaltzaindiaren idazkariak





EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Euskaltzaindiaren irizpena Sopelako herri izenaz

Euskaldunek mendez mende erabilitako izena eta egun erabiltzen dena, bai herrian bertan baita ingurukoetan ere, Euskaltzaindiak aspaldian hobetsi zuena **Sopela** da, *Sopelana*tik euskal fonetikaren legeei jarraituz eratorria, euskaraz, bai toponimian baita hiztegi arruntean ere, bokalen arteko *n* erori edo desagertu baitzen, Koldo Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* liburuan ongi azaltzen den moduan.

Bokalen desagertze hau ez da soilik leku izenetan gertatu hitz arruntetan ere bai, berba hauek euskal hitz jatorrak edo beste hizkuntzetatik hartutakoak diren kontuan hartu barik.

Toponimoetan, eta herri izenei mugatuz, nahiz eta joera hau leku izen guztiekin gertatu, besteak beste hauek ditugu: *Galdakao (Galdacano)*, *Lemoa (Lemona)*, *Aramaio (Aramayona)*, *Lazkao (Lazcano)*, *Zestoa (Cestona)*, *Arroa (Arrona)*, *Miñao (Miñano)*, *Dorrao (Torrano)*, *Zolia (Zolina)*...

Berba arruntetan ere suma daiteke aldaketa hau eta gaur egun *ardaua* edo *ardoa* eta *gazta* esan arren *ardandegi*, *ardantza*, *gaztanbera* eta *gaztanur* esaten da, aintzinean *n* zegoela eta hitzak **ardano* eta **gaztana* zirela adieraziz.

Esan bezala maileguetan (beste hizkuntzetatik hartutako berbak) ere ikus dezakegu jarrera hau, eta adibide batzuk baino ez aipatzearren latinetik aintzinatik hartutako hitz hauek ditugu: *katea*, *area*, *koroa*, *ohore*, *balkoi*,... gaztelaniaz oraingoz jatorrizko *n* daukatenak: *cadena*, *arena*, *corona*, *honor*, *balcon*,...

Euskaltzaindiak ez zituen hizkuntz osoari ez zegozkion tokian tokiko aldaketa fonetikoak onetsi herri izenak emateko, eta ondorioz ez zituen *Zestua*, *Lemoize* edo *Arguia*, onartu *Zestoa*, *Lemoiz* eta *Arrigorriaga* baizik, bai ordea euskara osoaren legeen arabera eratuak dauden izenak.

Kontsonanten erorketa hau ez da ostera, kasu guztietan gauzatzen, ez da, esaterako, atzizkietan egiten: *Perurena*, *Osabene*,.. ezta egun *-n-* izanda ere atzinako *-nn-* (*n* geminatua) zenean ere, bai beste hizkuntzetatik hartutako hitzetan: *anhue* edo *Joan/Doniane*; baita euskal hitz jatorretan ere: *anaia*, *unai*, *ene*, *arrano*, etab. Gogoratu behar aitzinean bai euskarak bai latinak grafikoki irudikatutako *-nn-* soinua zutela.



EUSKALTZAINDIA

Beraz, **Sopela** da egun ofiziala den *Sopelana* herriko euskal izen jatorra eta hau bere deklinabidea: *Sopelako, Sopelatik, Sopelan, Sopelako* eta *Sopelara*. Bestalde gentilizioa **sopelaztar** da.

Amaitzeko gogoratu behar da Euskararen Erabilera Arauzkotezko Oinarrizko Legearen 10. artikulua arabera, toki izenen jatorrizko idazkerari men egingo zaiola, izenok oso desberdinak ez direnean salbu, *Vitoria/Gasteiz, Arrasate/Mondragon* esaterako.

Bilbo, 1997ko urtarrilaren 28an

Mikel Gorrotxategi Nieto
Onomastika batzordearen idazkaria



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Dictamen de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia sobre el nombre vasco de Sopelana

El nombre utilizado secularmente, hoy en día en uso, por la totalidad de los vasco hablantes del municipio de Sopelana, así como los limítrofes, nombre dictaminado por Euskaltzaindia, es **Sopela**, forma derivada de Sopelana por pérdida de consonante *n* entre vocales, de acuerdo con las leyes fonéticas del euskera, como se explica correctamente en el libro de Luis Michelena *Fonética Histórica Vasca*.

La pérdida de la consonante no se da solo en la toponimia sino también el léxico común, sean palabras patrimoniales del euskera o préstamos de otras lenguas.

Dentro de los topónimos, y limitándonos a los nombres de municipios tenemos, entre otros: *Galdakao* (*Galdacano*), *Lemoa* (*Lemona*), *Aramaiio* (*Aramayona*), *Lazkao* (*Lazcano*), *Zestoa* (*Cestona*), *Arroa* (*Arrona*), *Dorrao* (*Torrano*), *Zolia* (*Zolina*), *Miñao* (*Miñano*)...

En el léxico común se puede detectar este proceso y aunque las formas para *vino ardoa*, *ardaua* y *queso gazta* carecen de *n* intervocálica en los compuestos sí aparece, diciéndose *ardandegi*, *ardantza*, *gaztanbera* y *gaztanur*, denotando claramente la existencia de la *n* y las antiguas formas **gaztana* y **ardano*.

Como se ha dicho, este proceso también se da en los préstamos y por ejemplo tenemos estas palabras tomadas del latín: *katea*, *area*, *koroa*, *ohore*, *balkoi*,... que en castellano mantienen la *n* original: *cadena*, *arena*, *corona*, *honor*, *balcón*.

La Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia no admitió las variantes locales producidas por fenómenos que no son generales a la lengua, como podría ser el caso de *Zestua*, *Lemoize* o *Argüia* por *Zestoa* (*Cestona*), *Lemoiz* y *Arrigorriaga*, sí en cambio, los nombres formados de acuerdo a las leyes de la totalidad del euskera.

Esta pérdida de consonante no se da en todas las situaciones, no ocurre por ejemplo en los sufijos: *Perurena*, *Osabene*, ni en los casos en los que la actual *n* fuese una *-nn-* (*n* geminada), ya fuesen estas palabras propias del euskera: *anaia*, *unai*, *ene*, *arrano*... o prestamos: *anhue*, *Doniane* (*Juan*). Hay que recordar que en la antigüedad tanto el euskera como el latín disponían del sonido representado por *-nn-*.



EUSKALTZAINDIA

Por lo tanto **Sopela** es la forma euskérica del actual municipio de Sopelana, siendo su declinación la siguiente: *Sopelako*, *Sopelatik*, *Sopelan*, *Sopelako* y *Sopelara*. Asimismo el gentilicio es **sopelaztar**.

Finalmente hay que recordar que de acuerdo con el artículo 10 de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera se respetará siempre la grafía originaria de los topónimos, excepto en el de aquellos en los que ésta sea sensiblemente diferente como *Vitoria/Gasteiz*, *Arrasate/Mondragon*.

Bilbao, 28 de enero de 1997

Mikel Gorrotxategi Nieto
secretario de la Comisión de Onomástica



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

D. José Luis Lizundia Askondo, Vicesecretario de la Real Academia de la Lengua Vasca-EUSKALTZAINDIA y Secretario de su Comisión de Onomástica, emite el siguiente

DICTAMEN:

Que según el Nomenclátor de Municipios del País Vasco, preparado y aprobado por esta Corporación académica, el clasificado con el número 565 y denominado hasta ahora en la versión romance: Sopelana, es en su versión académica euskérica: SOPELA.

Que SOPELA es la forma tradicional usual de la población euskaldun o vascófona de la zona, siguiendo la regla general de la toponomástica de la pérdida de la -n- intervocálica. Hay decenas de casos en todo el País, de los que se apuntan a título de ejemplo: Lemona, que pasa a ser LEMOA; Lemoiz, LEMOIZ; Lejona, LEIOA; Lemoniz, LEMOIZ; Lauquiniz, LAUKIZ; Ochandiano, OTXANDIO, en el Señorío de Vizcaya; Cestona, ZESTOA; Lazcano, LAZKADO; Arrona, ARROA, en la provincia de Guipúzcoa; Miñano, MIÑAO; Argomaniz, ARGOMAIZ; Berricano, BERRIKAO, en la provincia de Alava; Torrano, DORRAO; Labiano, LABIO; Liédenea, LEDIA, en el antiguo Reino de Navarra.

Que según acuerdo adoptado por esta Comisión en su última sesión, celebrada el pasado viernes, en la Casa Consistorial de Leiza, se ratifica que el nombre euskérico de este municipio es SOPELA y el de su gentilicio euskérico sopelaztar o sopelar.

Y para que conste y su remisión al Ayuntamiento de dicho municipio, expido la presente en Bilbao a veintiocho de Octubre de mil novecientos ochenta y siete.

Vº Bº

E. Knörr – Presidente
de la Comisión